

101 eta aurrera!

Ez da egunero idazten dogun gauzia: Candida Ardanzak 101 urte bete ditxu egunotan.

Berari San Antolin egunian jaixua dala esatia gustatzen jako, irailaren 2a baiño interesantiaua begintxanduta itxuria. Candida izendatu eben Ermuko 'Joxio' basarrixan jaixotako ha neska txikixa.

'Ermua-Eitzaga. Leku-ize-nak' liburuan, Fernando Aranberri Odriozolak ondokua diño 'Joxio' bere jaixotetxiaren gaiñian: "Baserri hau, gutxi gora behera, 1859an ekin zioten altxatze-ari. Hasiera batean, txabola modukoa zen. Geroago baserri bihurtu zuten. Gerra zibilaren ostean nahiko hondatuta gelditu zenez, bertakoak baserria laga eta kale-ara joan ziren. Jendea baserrian sartu eta dena apurtzen hasi zenean, ezustekorik gerta ez zedin, bota zuten. Joxiora joateko bi bide zueden: bata, Sallabentetik eta bestea Ermutik. Lehenengo bidearen aztarnak ikus daitezke oraindik. Biga-

rren gurdibidea, berriz, 'Joxio'tik Ermurakoa, Torretan amaitzen zen. Gaur egun bide hau porlanezkoa da".

Eskolara Sallabenterako bidia hartuta juaten zan; Ermura edo eskolara artekua oiñazian eitxen eben eta sarritxan antxixketan be bai, zein baiño zein ariñago eiñ! Goguan dakaz Eitzako baserrixen izenak, haren baten eskolatik bueltan baserrixtako neskatoen bat kontrarixua izango ebalako 'tortolose-tara' olgatzerakuan. Arotza zan aitxa eta trenbidia baiño beheratxuao ekan arotzerixia.

Bihargiña

Gazte-gaztetatik bizimodua etaratzera urten bihar izan eban. eta taillarrera. Debako etxe baten serbitzen egon zan eta Ermuko 'Izarrako'neko taillarrarian be ekin otsan.

23 urte zitxuala, Ermuan eta Manuel Agirregomezkorta Izagirre ermuarrakin ezkondu zan 1932ko febrerua-



Candida, Elixabete alaba eta Jon billobarekin.

ren 6xan, Santa Ageda hurrengo egunian. Plazan bizi izan ziran andra-gizonok eta hantxe jaixo ziran Elixabet eta Ana Mari alabak be.


'Inbirri'

Manuel, 'Inbirri' gatzizenagaitxik ezagunaua, 'Lomiño'neko taillarrarian euan enpliauta; beran orduak eiñ eta gero, illuntzi aldera etxian giltzak eiñ, zerrailak konpondu... zerrajerixa kon-tuetara dedikatzen zan. Ate danak zabalik eta giltzatu barik euzen herri baten, biharrik bai zerraila-kon-pontzaille batendako? Bai itxuria, etxe barrirak eitxen

hasi ziranian endemas. 24 orduz zabalik euki biharreko negozi-xua ei zan, ze edozein ordutan presentatzen jakon bateron bat, estu, atia zabaldu eziñik euala eta. Badaezpadan be, ring! eta ring! iñork desorduetan deit-zeko tentaziñua euki ez zeixan, Inbirrik ez eban sekula telefonorik ipiñi.

Ehun ta piku honek urtio-tan, on eta txar, danetik ikusitxakua da Plazako Candida. Zaharren Egoitza barrixan dago oin eta bisitan doiana irribarretsu hartzen dau.

Estibalitz González



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



MUSIKA
ESKOLA

- | | |
|----------------------|--------------|
| - Akordeoia | - Klarinetea |
| - Biolina | - Panderoa |
| - Biolontxelo | - Perkusioa |
| - Bonbardino | - Pianoa |
| - Flauta | - Saxofoia |
| - Kantua | - Trikitrixa |
| - Gitarra | - Tronboia |
| - Gitarra elektrikoa | - Tronpeta |
| - Gitarra baxua | - Txistua |
| - Lengoiaia musikala | |

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com